

Puxikaren indarra

Askotan, ahaztu egiten dugu aireak masa duela eta presioa egiten duela. Ziurrenik, denok adi egoten gara meteorologoek aire-presioari buruz hitz egiten dutenean, baina, nolana ere, kontu horiek apur bat abstraktuak izaten dira. Esperimentu honek kontu horiek etxean bertan ikusteko balio du, lehen hurbiltze bat besterik ez bada ere. Ume batzuek euren puxiketan bi dozena katilu baino gehiago eranstea lortu dute; jarraitu irakurtzen eta ikasi nola egin duten (eta zergatik den kopuru hori hain harrigarria).



BEHARKO DUZU

- Puxika gogor bat (zigarro-formakoa baino, hobe da malko-formakoa)
- Plastikozko sei katilu (esperimentua ondo ateratzen bazaizu, gehiagorekin saia zaitezke)




METODOA

1. Puztu puxika, laranja handi baten neurrikoa izan arte, gutxi gorabehera. Eutsi puxikari itxita, apur batean.
2. Busti plastikozko bi katiluren ertzak.
3. Sakatu katiluak puxikaren kontra eta jarraitu puzten. Katiluek puxikari atxikita jarraitu beharko lukete.
4. Errepikatu prozesua behin eta berriro —itxi, busti, sakatu eta puztu—, ea puxikan zenbat katilu eranstea lortzen duzun.



ZIENTZIA-AITZAKIA

Sarreran esan bezala, esperimentu hau presioari eta haren kideari —xurgatzeari— buruzkoa da. Ertzak bustitzean, katiluak, hasieran, puxikan itsasten dira, uraren tentsioagatik. Puxika puztean —eta katiluekin kontaktuan dagoen kurbadura murriztean—, ordea, katiluen barruko aire-presioa apur bat murrizten da, aire-kantitate berak espazio gehiago betetzen duelako. Katiluen kanpoaldeko aire-presioak, hala ere, lehengoa



izaten jarraitzen du. Presio-diferentzia hori dela eta, katiluak puxikaren barrualderantz bultzatzen dira.

! KONTUZ!

Batzuk zorionekoak dira, eta esperimentu honekin arrakasta izatea lortzen dute; nolana ere, eskarmentu txikieneko esperimentatzaileak ere lortu beharko luke bi katilu, gutxienez, puxikara eranstea. Puxikara erantsi ondoren, presio apur bat egin behar duzu katiluetan, ondo “hartzeko”.